**LASARTE-ORIAKO UDALAREN GAZTE-INFORMAZIOKO BULEGOAREN ZERBITZUKO LANAK PROZEDURA IREKIAN, ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAREN ARABERA ETA ADJUDIKAZIOKO HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA KONTRATATZEA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA.**

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea Gazte-Informazioko Bulegoaren zerbitzua ematea da, Preskripzio Teknikoen Agiriaren arabera, zeinek kontratu-izaera baitu.

## 2.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO TRAMITEA, PROZEDURA ETA FORMA.

Kontratua prozedura irekian, eskaintza ekonomikoki onuragarrienaren arabera eta adjudikazioko hainbat irizpideren arabera adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak (SPKL) 141.etik 145.era bitarteko artikuluetan eta 134.etik 136.era bitartekoetan xedatzen duenaren arabera.

## 3.- ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOA.

Kontratazioko espedientea arrunta izango da, SPKLko 93. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 4.- LIZITAZIOKO OINARRIA EDO TASA.

Lizitazioaren oinarri gisa balioko duen kontratuaren gehienezko prezioa hogeita hamabi mila zazpiehun eta hamasei eurokoa (**32.716,00 €**) izango da. Prezio hori honela desglosatua geratzen da: balio estimatua 28.203,45 euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga 4.512,55 euro.

Eskaintzen den prezioaren barruan sartuko dira kontratuaren ondorioz sortzen diren era guztietako tasak, kargak, zergak eta gastuak.

## 5.- ZERBITZUAREN FINANTZIAZIOA.

Kontratuaren xedeko zerbitzua indarrean dagoen Aurrekontu Orokorreko 1.0502.227.99.468.00 2008 (Gazte-Informazioko Bulegoaren Kontratua) kontu-sailaren kargura finantzatuko da, zeinetan kreditu nahikoa baitago kontratua betetzetik Udalari datozkiokeen obligazioei erantzuteko.

Era berean, afektatuak gertatzen diren etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak erreserbatzera konprometitzen da aurrekontuen gaian eskumena duen organoa.

## 6.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

1.- Kontratuaren iraupena hiru urtean finkatu da, dagokion kontratu administratiboa izenpetzen den egunetik kontatzen hasita, SPKLak 279. artikuluan ezartzen dituen epeei buruz.

2.- Kontratuaren iraupena, hala badagokio, urtebeteko epeetan luzatu ahalko da, alderdiek adostasunez horrela hitzartzen badute, baina gehienez ere urtebeteko hiru luzapen egin ahalko dira. Kontratuaren iraupen totala, luzapenak barne, ezingo da sei urtetik gorakoa izan.

3.- Kontratuaren indarraldiko epea eta, kasua hala bada, ondorengo luzapenak ere igarotakoan, automatikoki geratuko da amaitua, eta adjudikatarioak zerbitzua emateari utziko dio. Nolanahi ere, adjudikazioaren xedeko zerbitzua ematen jarraitzera obligatua egongo da, harik eta adjudikatario berria haren kargu egiten den arte, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoz. Inongo kasutan, epe hori ezingo da hiru hilabetetik gorakoa izan.

## 7.- ZERBITZUAREN ADJUDIKAZIOKO PREZIOA PAGATZEA.

Emandako zerbitzuen fakturazioa hilabeteka egingo da. Abonamendua egin aurretik, kontratatuFriko enpresak faktura zehaztu bat aurkeztu beharko du, zeinetan adieraziko baitu zein kontzeptugatik egiten duen, bai eta Udalak eskatzen dion beste edozein kontzeptu ere. Prestazioaren konformitatea jasotakoan, faktura ororen pagamendua 30 egunera egingo da, faktura Udaleko Interbentzioko bulegoetan erregistratzen den egunetik kontatzen hasita.

## 8.- PREZIOEN ERREBISIOA.

1.- Enpresek, eskaintzak aurkezterakoan, kontuan izan beharko dituzte lehenbiziko urtean merkatuko prezioen lehia eta gorabeherak, kalkulatu egin beharko dituzte horren kostuak, eta begiratu egin beharko dira inflazioaren gorakadatik. Horrenbestez, ez da kontenplatzen periodo horretan prezioak errebisatzerik.

2.- Zerbitzua ematen hasitako egunetik lehenbiziko urtea igarotakoan, hurrengo urte-sarien prezioak honako formula honen arabera errebisatuko dira:

I = KPI x 0,85

I = portzentajearen bariazioa.

KPI = errebisioko unean Kontsumoko Prezioen Indizeak aurreko hamabi hilabeteetan izandako bariazio portzentajezkoa.

3.- Lizitatzaileek beren eskaintzetan beherantz aldatu ahalko dute formula hori, betiere erreferentziako elementu moduan KPIa mantenduz.

**9.- ENPRESEN KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA SAILKAPENA.**

Lasarte-Oriako Udalarekin kontratatu ahalko dute obratzeko gaitasun osoa eta kaudimen finantzarioa eta teknikoa edo profesionala duten pertsona natural edo juridiko espainiar zein atzerritarrek.

Inolaz ere ezingo dute Udalarekin kontratu SPKLko 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean aurkitzen diren pertsonek.

Eskaintza aurkeztu ahal izateko bete beharreko baldintza izango da, halaber, lizitatzailearen helburuak edo garatzen duen jarduerak kontratuaren xedearekin zuzeneko erlazioa izatea, haren estatutuetan edo fundazioko arauetan adierazten denaren arabera, eta behar bezala akreditatzea ezen badaukala organizazio bat kontratua behar bezala exekutatu ahal izateko beharrezko diren elementu material eta pertsonalak dituena.

Kontratatu ahal izateko, ez da beharrezkotzat eskatzen enpresak aurretik sailkapena eskuratua izatea.

**10.- PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA.**

1.- Proposamenak hiru gutun-estalki bereizi eta independentetan aurkeztuko dira. Estalkiek, numeratuta eta itxita, inskripzio hau eraman beharko dute: "**LASARTE-ORIAKO UDALAREN GAZTE-INFORMAZIOKO BULEGOKO ZERBITZUA EMATEA**". Halaber, proposamena aurkezten duen enpresaren izena ere adierazi beharko da. Gutun-estalkien barruan, honako agiri hauek sartu beharko dira:

**a)** **1. zenbakia daraman estalkia:**
– Dokumentazio administratiboari buruzkoa. Hurrengo dokumentu hauek edukiko ditu, jatorrizkoan edota Udaleko Idazkariak edo fede-emaile publiko eskudunak behar bezala konpultsaturiko kopian edo fotokopian, eta aparteko orri batean adierazi beharko du horien zenbakizko zerrenda:

**a.1)** Enpresariaren eta, kasua bada, haren errepresentazioaren pertsonalitate juridikoa egiaztatuko duten agiriak.
Pertsonalitatea honela egiaztatuko du:

– Pertsona juridikoak diren enpresen obratzeko gaitasuna enpresa eratzeko eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo fundazioko aktaren bidez egiaztatuko da. Horietan agertu beharko du zein arauk erregelatzen duten enpresaren jarduera, eta, kasua hala bada, dagokien Erregistro Ofizialean inskribatuak egon beharko dute, nolako pertsona juridikoa den arabera.

– Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak diren enpresa ez espainiarrek, obratzeko gaitasuna badutela egiaztatzeko, zeinetan establituak dauden estatuko legediaren arabera dagokien erregistroan inskribatuak daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute,

araudiaren arabera ezartzen diren terminoetan eta aplikatzekoak zaizkien Europako Batasuneko xedapenen arabera.

– Gainerako enpresa atzerritarrek dagokien estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Permanentearen txostenarekin edo enpresaren helbidea haren lurralde-esparruan dagoen Bulego Kontsularraren txostenarekin.

– Enpresa indibiduala bada, Identitateko Dokumentu Nazionala edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztu beharko du.

– Besteren izenean agertzen direnek edo proposamenak besteren izenean sinatzen dituztenek DNIaren kopia eta horretarako ahalorde askietsia aurkeztuko dituzte. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritzako Erregistroan inskribatua agertu beharko du.

**a.2)** Solbentzia ekonomiko, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentuak:

Ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

**a.2.1)** *Solbentzia ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak*. Enpresariaren solbentzia ekonomiko eta finantzarioa modu hauetariko batean edo batzuetan akreditatu ahalko da:

– Entitate finantzarioen deklarazio egokiak edo, kasua hala bada, arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen asegurua baduelako sinestamendua. Urteko kontuak, dagokien Erregistro Ofizialean edo Merkataritzako Erregistroan aurkeztuak. Kontuak Erregistro Ofizialean aurkeztera obligatuak ez dauden enpresariek, egiaztatzeko modu alternatibo gisa, kontabilitateko liburuak aportatu ahalko dituzte, behar bezala legezkotuak.

– Negozioen bolumen globalari buruzko deklarazioa eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagozkion jardueren esparruko negozioen bolumenari buruzkoa, gehienez ere azken hiru urtaldietakoei dagokiena, betiere enpresaren jarduerak sortu edo hasi zireneko dataren arabera eduki ditzakeenak, negozio-bolumen horren erreferentziak eskura dituen neurrian.

**a.2.2)** *Solbentzia teknikoaren justifikazioa*. Solbentzia teknikoa ondoko dokumentu hauetakoren bat edo batzuk aurkeztuz akreditatuko du:

a. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien lista, zeinetan jasoko baitu haien zenbatekoa, datak eta destinatario publikoa edo pribatua. Egindako zerbitzuak edo lanak, destinatarioa sektore publikoko entitate bat denean, organo eskudunak egindako edo oniritzia emandako ziurtagirien bidez akreditatuko dira, edo, destinatarioa subjektu pribatu bat denean, hark egindako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri horren ezean, enpresariaren deklarazio baten bitartez. Ziurtagiri horietan aipatuko dira kontratuan parte hartuko duten teknikariak edo unitate teknikoak, enpresakoak izan edo ez; bereziki, kalitatearen kontrolaz arduratzen direnak.

b. Instalazio teknikoen deskripzioa, enpresak kalitatea kontrolatzeko darabiltzan neurriena eta estudiorako eta ikerkuntzarako enpresak dauzkan medioena.

c. Enpresariaren edo enpresako zuzendaritzako pertsonalaren titulazio akademikoak eta, bereziki, kontratua gauzatzeaz arduratuko den pertsonalarenak.

d. Enpresariak kontratua gauzatzean ingurumena kudeatzeko aplikatu ahalko dituen neurrien aipamena.

e. Enpresak azken hiru urteotan izan duen urteko batez besteko enplegatu-kopuruari eta zuzendaritzako pertsonalaren garrantziari buruzko deklarazioa, dagozkion sinestamenduekin batera.

f. Lanak edo zerbitzuak gauzatzeko eskueran edukiko dituen makineria, materiala eta ekipo teknikoa adieraziko dituen deklarazioa, zeini erantsiko baitizkio dagozkion sinestamenduak.

g. Enpresak, behar izanez gero, kontratuaren zein parte azpikontratatzeko asmoa duen adieraztea.

Kontratazioko mahaiari dagokio determinatzea ea aurkeztutako dokumentazioak behar bezainbat justifikatzen dituen enpresariaren solbentzia ekonomiko eta finantzarioa eta solbentzia teknikoa.

**a.3)** Erantzukizunezko deklarazio espresa, I. Eranskinean ageri den ereduaren araberakoa, zeinetan adieraziko baitu ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLko 49. artikuluaren arabera, egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio tributarioak eta segurantza sozialarekikoak betetzeari dagokionez, eta konpromiso formala hartzen duela, baldin eta adjudikatarioa gertatzen bada, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzekoa.

**a.4)** Atzerriko enpresek beste deklarazio bat aurkeztu beharko dute, zeinetan adieraziko baitute beren buruak Espainiako edozein mailatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dituztela kontratutik zuzenean edo zeharbidez sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokie, uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko barrutiko jurisdikzioari.

**a.5)** Enpresari bat baino gehiago lizitaziora enpresarien aldi baterako batasuna eratuta aurkezten badira, batasuna osatzen duen bakoitzak akreditatu beharko du bere obratzeko gaitasuna eta solbentzia, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, aldi baterako batasunaren solbentzia teknikoa determinatze aldera, metatu egingo dira batasuneko kide bakoitzaren ezaugarri akreditagarriak, betiere 1098/2001 Errege-Dekretuak 52. artikuluan ezartzen duena errespetatuz. Orobat aurkeztu beharko dute proposamen idatzi bat, zeinetan adieraziko baitituzte sinatzen duten enpresarien izenak eta zirkunstantziak, enpresari horietako bakoitzak duen partaidetza, eskubideak egikaritzeko ahalorde askietsia izango duen ordezkari edo ahalordedun bakarraren izendapena eta, adjudikatario gertatuz gero, aldi baterako batasuna formalki eratzeko eta kontratutik datozen obligazioak betetzeko konpromisoa.

**a.6)** Kontratisten Erregistro Ofizialak eginiko ziurtagiria aurkezteak, baldin haren eskumen-eremuak Euskadiko Komunitate Autonomoa hartzen badu, hartan jasotzen diren dokumentuak aurkeztetik dispentsatuko du.

**b) <u>2. zenbakia daraman estalkia</u>:**

– Proposamen ekonomikoa eduki beharko du, II. Eranskin gisa erantsitako ereduaren araberakoa. Horren barruan sartuko dira kontratuaren ondorioz sortuko diren era guztietako zergak eta gastuak. Proposamenean, aparteko kontu-sail gisa adierazi beharko da jasanarazi behar den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Lizitatzaileak ezingo du aukera alternatiborik aurkeztu prestaziorako aurkezten duen eskaintzaren ezaugarriei dagokienez, eta betiere errespetatu egin beharko ditu ezarritako preskripzio teknikoak.

**c) 3. zenbakia daraman estalkia:**

1.- Proposamen teknikoa eduki beharko du, honako dokumentazio honek osatua:

Egin beharreko lanak azaltzen dituen memoria. Memoria horrek definitu beharko ditu Preskripzio Teknikoen Agirian errekeritutakoaren arabera emango dituen zerbitzuak, bai halaber lehiaketako fasean ebaluatzeko proposatzen duen beste edozein hobekuntza, eta, gutxienez, ondoko atal hauek izan beharko ditu:

a) Eman beharreko zerbitzuaren proiektu funtzionala, zeinetan azalduko baititu haren antolamendua, programazioa, segimendua eta informazioa.

b) Egunero programaturiko eginkizunak, eta ohiz kanpoko eginkizunak.

c) Proposaturiko ordutegiak eta egutegia, bai halaber aportaturiko materialak.

d) Proiektuan sarturiko medio pertsonalak, alderdi hauek aintzat hartuz:

– Pertsonalaren organigrama, kopuru eta funtzioekin.
– Egutegia.
– Eginkizun bakoitzerako esleitutako baliakizun pertsonalak.
– Laneko ordutegia eta instalazioak publikoari irekitzeko eta ixteko ordutegia.
– Euskarako titulazioa.

2.- Proposamenak sekretuak izango dira, eta, horretarako, izaera hori lizitazio publikoaren unera arte bermatuko duten bitartekoak arbitratuko dira. Proposamenak, behin entregatutakoan, ezein kontzeptugatik ere ezingo dira erretiratu.

3.- Eskaintzari eransten zaizkion dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko dira. Dokumentuen jatorrizkoak beste hizkuntzaren batean idatziak badira, bi hizkuntza horietako batera egindako itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko dira.

4.- Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Banakako proposamena aurkeztu badu, ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta beste proposamenik aurkeztu, eta ezingo da aldi baterako batasun bat baino gehiagotan agertu.

## 11.- AURKEZPENA ETA EPEAK.

Eskaintza aurkezteak presuposatzen du enpresariak baldintzarik gabe onartzen duela Klausula Administratibo Partikularren Agirian eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritako guztiaren edukia, eta, era berean, bere gain hartzen duela bai aurkeztutako datuen zehaztasunaren gaineko erantzukizuna, bai zerbitzua kontratatzeko beharrezkotzat eskatutako kondizio guztiak eta bakoitza betetzen dituelakoaren gainekoa.

Eskaintzak Udaletxeko Sarreren Erregistro Orokorrean entregatu beharko dira, lanegunetan, 09:00etatik 13:00etara bitartean, lehiaketan parte hartzeko gonbita eta baldintza-agiri horiek jasotako egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta **HAMABOST EGUN NATURALEKO** epean.

Baldin eta epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna egokitzen bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

Proposamenak posta bidez ere bidali ahalko dira. Kasu horretan, enpresariak justifikatu egin beharko du zein egunetan ezarri duen igorpena posta-bulegoan, eta eskaintza igorri izana egun berean iragarri beharko dio organo kontratatzaileari, telex, telegrama edo fax bidez. Bi baldintza horiek bete ezean, organo kontratatzaileak ez du proposamena onartuko baldin eta horretarako jarritako epea amaitu ondoren jasotzen badu. Nolanahi ere, adierazitako data horretatik hamar egun natural igaro badira proposamena jaso gabe, ezein kasutan ere ez du onartuko.

## 12.- GUTUN-ESTALKIAK JASOTZEA.

Lasarte-Oriako Udalaren Idazkaritzan, harrera eman ahalko diote gutun-estalkietako bakoitzari, zeinetan agertuko baita eskaintzailearen izena, proposamenaren xedea, eta aurkeztutako eguna eta ordua.

Behin proposamena entregatutakoan, ezein kontzeptugatik ere ezingo da erretiratu.

## 13.- KONTRATAZIOKO MAHAIA.

Kontratazioko Mahaia honela osatua edo eratua egongo da:

– Alkate andrea, edo zeinengan delegatzen duen zinegotzia.
– Alkatetzak izendaturiko bi bokal.
– Udaleko idazkaria.
– Kulturetxeko zuzendari kudeatzailea
– Udaleko kontu-hartzailea.
– Idazkari bat, Udaleko idazkariak kontratazioko organoari atxikitako langileen artean izendatua.

## 14.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA AKATSAK ZUZENTZEA

Behin eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, espediente administratiboaz arduratzen den unitateak, behar diren teknikarien kolaborazioarekin, A estalkian sartuak dauden dokumentuak aztertuko ditu eta horiei buruzko txostena egingo dio Kontratazioko Mahaiari, zeinek dokumentu horiek kalifikatzeri ekingo baitio.

Baldin mahaiak akats materialik ikusten badu eskaintzaileek aurkeztutako dokumentazioan, eman ahalko du, egoki baderitzo, lizitatzaileak akatsa zuzentzeko epe bat, gehienez ere hiru egunekoa.

## 15.- AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK IREKITZEA.

–Udalaren iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko den iragarpenean zehaztutako lekuan, egunean eta orduan, eta edozein kasutan ere eskaintzak aurkezteko epea amaitzen duen egunetik kontatzen hasi eta gehienez ere hilabeteko epean, proposamenak irekitzeko ekitaldia egingo da, eta horretarako bilduko da kontratazioko mahaia.

–Idazkariak ekitaldiaren akta idatziko du, zeinetan fidelki jasoko baitu mahaiaren deliberazioen emaitza.

–Ondoren, mahaiak, bere proposamena formulatu aurretik, aurkeztutako eskaintzei buruz bidezko deritzen argibideak eskatuko ditu, edo beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak. Hori egindakoan, bidezko deritzon adjudikatzeko proposamena formulatuko du eta kontratuaren adjudikazioa erabaki behar duenari zuzenduko dio, klausuletan seinalatutako irizpideen ponderazioa ere sartuta.

**16.- DOKUMENTUAK AURKEZTEA.**

Udalak adjudikaziodunari, kontratua indarrean dagoen epearen barruan, edozein unetan eskatu ahalko dizkio obligazio fiskaletan edo segurantza sozialari dagozkionetan egunera dagoela akreditatuko duten ziurtagiriak edo beste edozein agiri.

**17.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK.**

Lasarte-Oriako Udalak, lehiaketa adjudikatzeko, ondoren adierazten diren irizpide objektibo hauek izango ditu kontuan, garrantzi handienekotik txikienekora ordenaturik:

**17.1.– Gazte-Informazioko Bulegoa kudeatzeko proiektua, gehienez ere 70 punturaino**
Honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

– Gazte-Informazioko Bulegoaren proiektua, informazioa gazteei hedatzeko programaturiko jarduerak, haien egutegia eta antolamendua. (Gehienez ere 30 punturaino)

– Kulturetxearen webgunea diseinatzeko eta mantentzeko proiektua eta gazteentzako jardueren kartelak eta esku-programak nahiz Kulturetxearen jarduera orokorrenak diseinatzeko eta editatzekoa (gehienez ere 20 punturaino)

– Pertsonaleko plana: pertsona-kopuruaren eta egin beharreko lanen antolamenduaren proposamena (gehienez ere 15 punturaino)

– Kontratuari esleituriko medio materialak (gehienez ere 3 punturaino)

– Laneko prebentzio eta segurtasunerako plana, Gazte-Informazioko Bulegoko zerbitzuaren ezaugarrien araberakoa. (Gehienez ere 2 punturaino)

Kalkulatzeko, atal bakoitzean eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaizkio puntu gehien, eta txarrenari 0 puntu; gainerakoak interpolatu egingo dira.

**17.2.-– Eskaintza ekonomikoa, gehienez ere 20 punturaino.**

Gehienez ere 20 punturekin baloratuko da eskaintza ekonomikorik hoberena aurkezten duen proposamena, eta 0 punturekin lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamena; gainerakoak interpolatu egingo dira.

**17.3.- Zerbitzua egokiro betetzeko garantiak eta kontrolak, gehienez ere 6 punturaino**. Honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

– Administrazioaren eta adjudikatarioaren artean behar bezala komunikatzeko sistemak (Gehienez ere 3 punturaino)

– Enpresan kalitate-sistemak ezartzea, organizazio edo entitate eskudunak (ISO, AENOR, etab.) behar bezala konstatatuak (Gehienez ere 3 punturaino)

Kalkulatzeko, atal bakoitzean eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaizkio puntu gehien, eta txarrenari 0 puntu; gainerakoak interpolatu egingo dira.

**17.4.– Prezioen errebisioa: 4 puntu gehienez.**

Kalkulatzeko, atal bakoitzean eskaintzari hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaizkio puntu gehien, eta 0 puntu lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamenari; gainerakoak interpolatu egingo dira.

Txosten teknikoan jaso beharko dira proposatzen den ebaluazio-proposamena justifikatuko duten datuak.

Kontratazioko Mahaia ez da geratuko txostenaren edo txostenen edukiari lotua. Hori horrela izanik ere, baldin eta haren proposamena bat ez badator teknikariek egindakoarekin, arrazoitu egin beharko du.

## 18.- KONTRATUAK ADJUDIKATZEA.

Kontratazioko Organoak, Kontratazioko Mahaiaren dokumentazioa jasotakoan eta dagozkion txosten teknikoak ebaluatutakoan, kontratua proposamenik onuragarrienari behin-behinean adjudikatzeko ebazpena emango du, behar bezala arrazoitua, haren balio ekonomikoari soilik begiratu gabe.

Kontratazioko organoak, aukeran, kontratua adjudikazioko irizpideen arabera onuragarriena den proposamenari adjudikatzeko ahalmena izango du, edota lehiaketa esleitu gabe deklaratzekoa, baldin eta baldintza-agiri honetan ageri diren irizpideen arabera onartzeko modukoa den eskaintzarik edo proposamenik ez badago.

Behin-behineko adjudikazioa ezingo da behin betiko bihurtu hamabost egun baliodun igaro arte, hura kontratazioko organoaren kontratatzaile-profilean publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, adjudikatarioak betebehar tributarioak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeaz den bezainbatean egunera dagoela egiaztatzen duten sinestamenduak aurkeztu beharko ditu, bai eta JEZn alta emanda egotearenak ere. Azken hori akreditatzeko, jadaneko urtaldiari dagokion alta edo JEZren azken erreziboa aurkeztuko du, zerga horren matrikulan baja eman ez duela dioen erantzukizunezko deklarazioarekin batera.

Behin-behineko adjudikazioa behin betiko bihurtutzat joko da baldin eta adjudikatarioak, aipaturiko epe horretan, seinalaturiko dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea ezarri badu, alde batera utzirik ezen errekurtso bereziko bidean errebisatzea gerta litekeela, SPKLko 37. artikuluan xedaturikoaren arabera.

**19.- ADJUDIKATZEKO EPEA.**

Behin-behineko adjudikazioa gehienez ere bi hilabeteko epean xedatu beharko da, ekitaldi publikoa egiten den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Adjudikazioa epe horretan xedatu ezean, enpresariak eskubidea du bere proposamena erretiratzeko eta depositaturiko bermea itzul diezaioten.

Kontratazioko Mahaiko idazkariak dagozkion notifikazioak egingo ditu, SPKLko 137. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**20.- KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA.**

Kontratatzeko organo eskudunak egindako behin betiko adjudikazioaren bidez perfekzionatuko da kontratua.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, behin betiko adjudikazioa notifikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta 10 egun balioduneko epean, eta dokumentu hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sarbidea izateko.

Adjudikatarioak, alabaina, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahalko du. Kasu horretan, formalizazioko gastuak adjudikatarioaren kontura izango dira.

**21.- BERMEAK.**

Ez da behin-behineko bermerik beharresten.

Behin betiko bermea adjudikazioko prezioaren %5ekoa izango da, eta SPKLko 84. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan ezarri ahalko da.

Behin betiko bermea ezarri izana kontratuaren behin-behineko adjudikazioa publikatu eta hurrengo 15 egun baliodunen barruan akreditatu beharko da. Eskakizun hori ez betetzeak, adjudikatarioari lepora dakiokeen kausagatik bada, kontratua deuseztatzea ekar dezake.

Penalitateak eta kalte-ordainak efektibo egiten diren egunetik kontatzen hasi eta 15 egun naturaleko epean, adjudikatarioak dagokion zenbatekoan birjarri edo gehitu beharko du bermea, ezen eta, beste gainontzean, kontratua deuseztatzeko kausan inkurrituko du.

Baldin eta, kontratua modifikatzearen ondorioz, haren balio totalak gorabeheraren bat izaten badu, birdoitu egingo da bermea, aurreko paragrafoan adierazitako epean, kontratua modifikatzen den unetik kontatzen hasita.

**22.- BERMEKO EPEA.**

Bermeko epea sei hilabetekoa izango da, onarpeneko edo konformitateko egunetik kontatzen hasita. Epe hori Administrazioak eragozpenik jarri gabe igarotakoan, iraungita gertatuko da kontratistaren erantzukizuna.

Kontratua kontratistarekin konplitutzat joko da hark kontratuaren xedea osorik bete duenean, hango terminoen arabera eta Administrazioaren gogara.

**23.- ZERBITZUA EMATEKO EPEA.**

Adjudikatarioak berandutzan inkurrituko du, Lasarte-Oriako Udalak aditzera eman beharrik gabe, baldin eta prestazioa kontratuak seinalatzen duen garaian egiten ez badu.

**24.- EGIN BEHARREKO LANA BURUTZEA, ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA.**

Lana kontratuan estipulaturiko klausulei eta haren oinarri gisa balio duten baldintza-agiriei hertsiki loturik egingo da.

Udalari dagokio zerbitzua betetzen dela ikuskatzeko lanak egitea, era jarraituan eta zuzenean.

Adjudikazioduna obligatua gelditudo da, kontratatutako lanen motari eta haiek burutzeko ordenari, moduari eta denborari dagokienez, Udalak komunika diezazkiokeen xedapen guztiak eta bakoitza betetzera.

**25.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**

1) Baldin eta Administrazioak, kausa justifikaturik gabe, zerbitzuaren onarpenean berandutzan inkurritzen badu, enpresariak denuntziatu egin beharko du eraginik izango badu.

2) Kontratuaren gauzatzea kontratistaren arrisku eta menturara egingo da.

3) Zergak, tasak edo konpentsazioak eta sor daitezkeen gainerako gastuak adjudikatarioaren kontura joango dira, eta eskaintzaren barruan sartutzat joko dira.

4) Enpresaria obligatua dago zuzenbide laboralaren, Segurantza Sozialaren eta Laneko Segurtasunaren eta Higienearen arloan indarrean dauden xedapenak betetzera, eta hark betebehar horiek ez betetzeak ez du Administrazioarentzat inolako erantzukizunik

inplikatuko. Berebat bete beharko ditu kontratua gauzatzen duen bitartean promulga daitezkeenak ere.

5) Enpresariaren obligazioa izango da zerbitzua gauzatzeak eskatzen dituen operazioen ondorioz gerta daitezkeen kalte-galerak indemnizatzea.

6) Zerbitzua emateko beharrezko diratekeen lizentzia edo baimen administratibo guztiak eskuratzea adjudikatarioaren kontura izango da beti, eta bere izenean eskatu beharko ditu.

7) Kontratatutako zerbitzuei dagokienez enpresa adjudikatarioak ezagutzen dituzkeen datu guztiak konfidentzialtzat jotzen dira, eta gorde egin beharko du horien identitatea eta sekretua. Adjudikatarioak isilpe profesionalaren betebeharra urratuz gero, horrek kausaturiko kalte-galerengatik indemnizatu beharko ditu Lasarte-Oriako Udala eta pertsona afektatuak.

8) Adjudikatarioak gehigarrizko pagamendurako eskubiderik gabe eman beharko ditu kontratua egokiro garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak, hala nola laneko edo informazioko bileretara joatea. Betebehar horrek bermeko epea amaitzen den arte iraungo du.

9) Enpresariaren erantzukizuna izango dira emandako zerbitzuen kalitatea eta dituzkeen hutsuneak. Hautematen diren akatsak Administrazioaren agindu baten edo hark ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean, orduan bakarrik geratuko da erantzukizunetik salbuetsia.

Adjudikatarioak ezingo ditu ez zeditu ez transferitu kontratutik sortzen diratekeen eskubideak, Udalaren baimen espresarekin ez bada, eta, betiere, SPKLko 209 eta 210. artikuluetan ezarritakoa bete beharko du.

**26.- BESTELAKO BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK.**

Adjudikatarioak erantzukizun zibileko poliza bat kontratatuko du, zenbatekoz 60.000,00 eurokoa, Udal honekin kontrataturiko zerbitzua ematetik sorturiko arriskuak aseguratuko dituena, eta Udalari poliza horren kopia bat eman beharko dio kontratua sinatzean.

**27.- PENALITATEEN ERREGIMENA.**

a) Kontratua betetzeari dagokionez, kontratista obligatua dago hura burutzeko ezarritako epe totalaren barruan konplitzera, bai eta epe partzialen barruan ere, baldin eta horrelakoak ezartzen badira elkarren segidan egiteko.

b) Baldin kontratista, berari lepora dakizkiokeen kausengatik, berandutzan erori bada epe totala betetzeaz den bezainbatean, Administrazioak aukeran erabaki ahalko du hala kontratua suntsitzea nola egunkako penalitateak ezartzea, kontratuko prezioko 1.000 euroko bakoitzeko 0,20 euroko proportzioan.

c) Berandutzeagatiko penalitateak kontratuko prezioaren 100eko 5aren multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazioko organoak eskumena izango du kontratua deuseztatzeko edota hura gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, penalitate berriak ezarriz.

d) Baldin eta kontratistak ez badu bete eskainitako medio pertsonalak edo materialak kontratua gauzatzeari adskribitzea, penalitateak ezarriko zaizkio, kontratuko prezioko 1.000 euroko bakoitzeko 0,05 eurotik 0,15 eurora bitarteko proportzioan, ez-betetzearen larritasunaren arabera, zerbitzua egokiro emateari dagokionez. Baldin eta kontratistak, berari lepora dakizkiokeen kausengatik, ez badu betetzen kontratuan definituriko prestazioen gauzatze partziala, Lasarte-Oriako Udalak aukeran erabaki ahalko du nahiz kontratua deuseztatzea nahiz penalitateak ezartzea, jarraian zehazten denaren arabera:

– Lehenbiziko ez-betetzeagatik, 60 €-ko penalitatea.
– Bigarren ez-betetzeagatik, 120 €-ko penalitatea
– Hirugarren ez-betetzeagatik, 250 €-ko penalitatea.
– Laugarren eta hurrengo ez-betetzeengatik, 600 €-ko penalitatea.

Prestazioen ez-betetze partzialtzat joko da betebeharretakoren bat arrazoizko epean ez betetzea.

e) Baldin eta udaleko teknikariek hutsuneren bat hautematen badute erabilitako elementuetan, idatziz jakinaraziko diete Udalari eta kontratistari, zeinek, entzun eta gero, berriro jarri beharko baititu elementu afektatuak. Hala ere, santzio ekonomikoa ezarri ahalko zaio, ordezturiko materialen balioaren 100eko 50erainokoa izan daitekeena.

**28.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA.**

SPKLko 206. eta 284. artikuluetan iragarritako deuseztatzeko kausetakoren batengatik iraungi ahalko da kontratua.

Horretarako, kontratuko betebehar ez funtsezkoak behin eta berriro ez betetzeak kontratuko edozein betebehar funtsezko ez betetzearen ondorio bera izango du.

**29.- UDALAREN PRERROGATIBAK.**

Udalaren prerrogatibak dira kontratua interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoagatik hura modifikatzea, haren deuseztapena erabakitzea eta horren ondorioak finkatzea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeko mugen barruan eta han ezarritako baldintzei eta efektuei loturik.

**30.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.**

Bide administratiboari amaiera ematen dioten akordioen aurka, administrazioarekiko auzietako errekurtsoa jarri ahalko da, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedaturikoaren arabera.

## 31.- ERREGIMEN JURIDIKOA.

Kontratu administratiboa ondoko hauek arautuko dute:

a) Baldintza-agiri honetan eta dokumentazio teknikoan jasotako klausulek.
b) Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak.
c) 1098/2001 Errege-Dekretu Legislatibo uztailaren 5ekoak, zeinen bidez onesten baita Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, betiere aurrekoaren aurka ez doanean.
d) Kontratazio administratiboa erregelatzen duen eta aplikatzekoa zaion beste edozein xedapenek.
e) Osagarri moduan, arau zibil pribatuak aplikatuko dira.

## 32.- KONTRATISTAREN PROFILA.

http://www.lasarte-oria.org/contratacion

**I. ERANSKINA**

**DEKLARAZIOAREN EREDUA**

(Pertsona naturala edo fisikoa denean)

___ jaunak/andreak, adinez nagusia, DNIa ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, deklaratzen du Administrazio Publikoarekin kontratatzeko ahalmenduta dagoela, zeren, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez baitago sarturik Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatuz gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko konpromiso formala.

Partikularki, espresuki deklaratzen du ez duela santzio irmorik jaso laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik, SPKLko 49 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Lekua, data eta sinadura)

(Sozietatea edo pertsona juridikoa denean)

___ jaunak/andreak, adinez nagusia, DNIa ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, zeinek ordezkatzen baitu ___ enpresa, IFZ ___ zenbakikoa eta egoitza soziala ___ helbidean duena, deklaratzen du bai bera bai ordezkatzen duen enpresa Administrazio Publikoarekin kontratatzeko ahalmenduta daudela, ezen eta, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez daude sarturik Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio tributarioak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatuz gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko konpromiso formala.

Partikularki, espresuki deklaratzen du ez duela santzio irmorik jaso laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik, SPKLko 49 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Lekua, data eta sinadura)

## II. ERANSKINA

## PROPOSAMEN EKONOMIKOA

___ jaunak/andreak, adinez nagusia, DNIa ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, zeinek ordezkatzen baitu ___ enpresa (IFZ: ___; telefonoa: ___; faxa: ___),

**DEKLARATZEN DU:**

**Lehenik**. Eskaintza irmoa aurkezten duela Lasarte-Oriako Udalaren Gazte-Informazioko Bulegoko zerbitzua emateko kontratuaren adjudikaziorako prozeduran parte hartzeko.

**Bigarrenik**. Ezagutzen dituela Klausula Administratibo Partikularren Agiria eta Preskripzio Teknikoena, eta espresuki asumitzen dituela eta osoki men egiten diela.

**Hirugarrenik**. Errepresentatzen duen enpresak baduela gaitasun eta bitarteko nahikorik kontratua aipaturiko klausuletan eta haiekin batera doan aurrekontuan ezarritako kondizioetan bete ahal izateko.

**Laugarrenik**. Kontratua Klausula Administratibo Partikularren Agirian ezarritakoari eta eskainitako kondizioei loturik betetzera konprometitzen dela, zenbateko honetan: ___ euro (BEZa sartu gabe) eta ___ euro, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak (letraz eta zenbakiz).

**Bostgarrenik.**- Prezioak aldatzeari dagokionez, konprometitzen dela aldaketa hori, dagokion unean, honako formula honen arabera egitera:

I = KPI x ...

(Lekua, data eta sinadura).

DILIGENTZIA: Nik egiten dut, Lasarte-Oriako Udaleko Idazkari Orokorra naizen honek, idatziz agerrarazteko ezen baldintza-agiri hau 2008ko .....ren ...ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela.

Idazkaria,

stua.: Francisco Xabier Egea Jauregi,

XABIER
EGEA
JAUREGI

Firmado digitalmente por XABIER EGEA JAUREGI
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=Ayuntamiento de Lasarte-Oria - Lasarte-Oriako Udala, ou=SECRETARIO, ou=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, ou=Entitate publikoen ziurtagiri - Certificado de entidad publica, ou=Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko, dnQualifier=-dni 15902285Q, cn=XABIER EGEA JAUREGI, givenName=XABIER, sn=EGEA JAUREGI, serialNumber=15902285Q
Fecha: 2008.11.10 14:52:36 +01'00'